

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa koordinatu ahal izateko, bakoitzak rol definitu bat eduki behar du, garbiketarako, programaziorako, salmentarako... Horretarako, guk egin behar ditugun lanak ulertu eta beste enpresek egin behar dituzten lanak bereizi beharko ditugu jarduera garrantzitsuenatik ez hain garrantzitsura ordenatuz.

Gure proiekturako ezinbestekoak diren jarduera batzuk gure esku egongo dira. Hasieran gu izango gara eskolaz-eskolaz joango garenak gure produktua erakusten eta funtzionamendua azaltzen, jarduera hau garrantzitsuenetako bat izango da, hor edukiko dugulako aukera gure produktua saltzeko. Bestalde, ondo adierazi beharko diegu langileei nola nahi dugun gure makina eta proiektua izatea, hau da, dauzkagun ideiak adierazi eta nolakoa izango den makinaren funtzionamendua erakutsi. Horrez gain gure esku egongo da produktua saldu ondoren edukiko dugun harremana bezeroekin, gure intentzioa gure produktuarekin pozik egotea izango litzateke, arazo baten aurrean laguntzeko prest egoteko. Azkenik, makinaren diseinuaz eta enpresaren kontuetaz ere gu arduratuko gara. Markel eta Anderren abilezia dela eta enpresaren kontuak egingo dituzte, hau da, zenbat diru joan eta etorri zaigun. Bestalde Iker eta Beñat makinaren hasierako diseinuaz arduratuko dira, marrazketa teknikoan abilak baitira.

Honek ez du esan nahi gu bakarrik gauza batzuetaz arduratuko garenik, gu langile guztiekin egongo gara beraien lana ondo egin dezaten, azkenean guk izango gara proiektua kontrolatuko dutenak. Beraz guk kontratatuko ditugu eta hor hasiko da gure lana, gure langileak ondo aukeratzea ezinbestekoa izango da, eta gure langileak beti egon beharko dira prest talde lana egiteko. Langile bakoitzari bere %100 emateko eskatuz.



Beste jarduera batzuk berriz, gu ez garen beste pertsona batzuk egin beharko dute, eta jarduera hoiek nahiz eta gure esku ez egon oso garrantzitsuak dira. Lehenetasun handiena izango duen jarduera gure makinaren programazioa izango da, hau da, gure programatzaileak ondo zehaztea gure makinak egingo dituen gauza guztiak eta akatsik gabe egiteko gai izatea, eta arazoren bat sortzen bada hori konpontzeko gai izatea. Beste alde batetik, lehenetasuna edukiko du gure makina egiteak, guk gure bozetoa emango diegu lanileei eta haiek gure makina egingo dute.

Azkenik gure proiektua hobetu ahal izateko gure webgunetik inkesta batzuk egingo dizkiegu gure bezeroei, eta horrela gure akatsak ikusiko ditugu, eta hoiek berriro ez gertatzeko zer egin dezakegun hausnartuko dugu. Inkestak hiru hilabetez behin egingo dira eta gure bezeroek gure enpresari buruz gustatu zaizkien gauzak esango dizkigute eta hobetu beharrekoak ere. Azkenik, guk ideia guzti hoiek hartuko ditugu gure enpresa hobetzeko.